

## Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

**12. zenbakia****Data 2010-01-21****145 orria**

---

**7 Udal Administrazioa**

LASARTE-ORIAKO UDALA

**BEHIN BETIKO ONARPENA: Udalaren kolunbarioa arautzeko ordenantza.**

---

LASARTE-ORIAKO UDALA

Iragarkia

Udalaren Kolunbarioa Ordenantza Arautzailea behin-betiko onetsia izan ondoren, Probintziako aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratzen da, Errigemena Lokaleako Oinarriak arautzen dituen Legeko 70.2 artikulua agintzen duena betez, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 65.2 artikuluan aurikusutako epea iragandakoan sartu da indarrean.

Lasarte-Oria, 2010eko urtarrilaren 11.—Alkatea.

(174) (373)

Udalaren kolunbarioa arautzeko ordenantza

1. artikulua. Xedea.

Kolunbarioen erabilera eta okupazioa arautzea da ordenantza honen xedea.

2. artikulua. Kontzeptua.

Hilotzaren edo haren gorpuzkinen intzineraziotik edo kremaziotik sortutako erraustak gordetzera destinatutako barrunbeei deitzen zaie kolunbario.

3. artikulua. Kokagunea.

Kolunbarioak udalaren hilerrian daude kokatuak, eta bakoitzak hilotz bakarraren edo haren gorpuzkinen intzineraziotik edo kremaziotik sortutako erraustak edo hormako hilobi beretik ateratako hilotzen gorpuzkinen erraustak soilik gorde ditzake.

Gutziz kasu berezietan, eta behar bezala justifikatuta, Udalak beste erabakiren bat ere har dezake.

4. artikulua. Destinazioa.

Udalerrian bizi zirenen erraustak bakarrik onartuko dira, hau da, hiltzeko unean udalerrian erroldatuak zeudenenak.

Dena dela, eta betiere herritarren beharrei erantzuteko nahikoa toki libre edukiz gero, herrian jaiok izan arren hiltzeko unean bertan bizi ez zirenen erraustak ere gorde ahalko dira, aldez aurretik eskabidea egin eta Udalak baieztatu erabaki espresua emanez gero.

Lasarte-Orian erroldatuak ageri diren pertsonen kasuan, baldin eta haien lehen mailako senitartekoak (gurasoak, seme-alabak) udalari honetako hilerrian hilobiratuta badaude, hilobiari dagokion kontzesio administratiboa amaitzean edo gorpua hilobitik ateratzeko unean, gorde ahalko dituzte gorpuzkin horien erraustak kolunbarioan, aldez aurretik dagokien eskabidea eta gorpuzkinen intzinerazioa eginda.

5. artikulua. Eskabideak.

Kolunbarioa erabiltzeko interesa duen pertsonak Udaleko Erregistro Orokorrean honako dokumentazio hau aurkeztu

beharko dute, Udalak berak emango dien inprimakian egindako eskabidearekin batera:

- Eskatzailearen DNIaren fotokopia.
- Edozein kremazio-labetan erraustu izana egiaztatzen duen dokumentua.
- Aurretik lurperatu gabeko hilotzen erraustsak baldin badira, heriotzaren Erregistro Zibileko inskripzioa.

Eraukitzeko erabakiak honako datu hauek jaso beharko ditu, gutxienez: Kontzesiodunaren izena eta abizenak, kolunbarioaren zenbakia, eta kontzesioaren data eta epea.

Ezingo da inolaz ere kolunbarioko aterik ireki kontzesioaren epea amaitu arte, non eta kontzesionarioak erraustsak alde zuzenetik erretiratu nahi ez dituen. Kasu horretan, eskabidea aurkeztu beharko dio Udalari, eta, hark onesten badiu, une horretan kontzesioa bukatutzat joko da.

6. artikulua. Kontzesioaren epea.

Kolunbarioko unitatea erabiltzeko epea (behin-behineko kontzesioa) hamar urtekoa izango da, erabiltzeko kontzesioa ematen zaion egunetik aurrera.

Baldin eta, interesatuari dagozkion arrazoiak direla medio, kontzesioa epea amaitu aurretik eteten bada, pertsona horri ez zaio bueltatuko ordaindutako zenbatekoa, ez osorik, ez zatirik, ez baitu horretarako eskubiderik izango.

Baldin eta kontzesioaren epea amaitu eta hilabetera inork ez baditu erraustsak eskatu jasotzeko, Udalak hezurtoki komunera eramango ditu.

Kontzesioko epea beste hamar urtez bakarrik luzatu ahalko da, eta behin bakarrik, lehenagotik ehortziak izan ez diren gorpu edo gorpuzkinen kasuan.

7. artikulua. Tasak.

Kolunbarioaren kontzesioa eta erabilera ordenantza fiskalean finkaturiko tasak pagatzeari loturik egongo dira.

8. artikulua. Erraustsak gordetzeko era.

Erraustsak modu ordenatuan gorde beharko dira kolunbarioetan, hau da, aurrealdetik atzealdera eta goitik behera. Beraz, ezingo da hurrengo ilarako kolunbariorik okupatu harik eta aurrekoa erabat okupatuta egon arte.

Hurrenkera zehazte aldera, erabiltzeko kontzesioaren data hartuko da kontuan.

9. artikulua. Kolunbarioen erregistroa.

Udalak kolunbarioen erregistro bat eramango du, zeinetan jasoko baititu, gutxienez, eskatzailearen izen-deiturak, erraustuaren izen-deiturak, kolunbarioen zenbakia, eta kontzesioaren data eta epea.

10. artikulua. Kolunbarioen ezaugarriak eta ornamentuzko antolaera.

Kolunbarioek identifikazio-plaka bat izango dute, zeina Udal honek hornituko baitu, grabatu gabe, kontzesioaren ebazpena notifikatu eta gehienez ere hilabeteko epean.

11. artikulua. Kalteak.

Lasarte-Oriako Udalak hilerriaren zaintza orokorra egingo badu ere, ez du bere gain hartzen hirugarrenek kolunbarioetan egin ditzaketan lapurreta edo kalteen erantzukizunik. Era beran, ez du bere gain hartzen kausa naturalengatik (uholdeak) gertaturiko kalteen erantzukizunik.

12. artikulua. Ordenantzaren interpretazioa.

Alkateak eskumena izango du honako ordenantza hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren arauak emateko, bai halaber ordenantzaren interpretazioan sor litezkeen zalantzak erabakitzeko.

Lasarte-Oria, 2010eko urtarrilaren 11.—Alkatea.

(174) (373)